# Aldaketa soziala behar dugu

## *Baditugu alternatibak!*

**#m14aldaketasoziala**

- Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta sinatu genuen erakunde sozial eta sindikalek **bizitzaren sostengua erdigunean** jarriko duen gizarte eredua defendatzen dugu
- Hemen aurkezten ditugun neurriek aurrerakada nabarmena ekarriko lukete norabide horretan
- **Mobilizazioa ezinbestekoa** da gure helburuak lortzeko
- **Aliantza sindikal eta sozial** indartsua behar dugu, izaera kritikoarekin
- Proposamenak egin eta lehentasunak adosteko gaitasunarekin

- **Karta oinarrizko tresna** da, EHn ezartzen ari diren politikak errotik aldatzeko
- Beharrizanetik abiatu eta **gizarte eredu alternatiboa** jasotzen duena
- Ezartzen ari diren politika antisozialen ondorioz biztanleriaren **pobretze orokortua** ematen ari dela salatzen dugu
- **Aberastasunaren banaketa** gero eta **bidegabeagoa da**

- Salatzen dugu: Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta EAEko hiru Foru Aldundiak **ez dira ari politika publikoen, aurrekontu politiken eta politika fiskalen orientazioa errotik aldatzeko beharrezko neurriak hartzen**
- Hego Euskal Herriko instituzioetako 2015eko aurrekontuen eztabaidak erakutsi du nola, praktikan, **alderdi politikoek alternatiba errealen eztabaida ekiditen dute**n, aldaketa soziala eragotziz

- Gertatzen ari dena arbuiatzea ez da nahikoa
- **Egoera errotik aldatu** behar da eta **eredu sozio-produktibo berri bat eraiki Euskal Herrian,** oinarrizko beharrak asetzea oinarri duena
- Horregatik guztiagatik, Eskubide Sozialen Kartarekin konprometitu garen erakunde sozial eta sindikalek Hego Euskal Herriko instituzioei **eskatzen diegu**:

# Aurrekontu eta politika fiskal eta sozialen aldaketa

- Espainiako Gobernuak onartu dituen mugapen nahiz murrizketak ez onartzea
- Euskal Herriko instituzioek ezarritako murrizketak atzera botatzea
- Ondasunaren banaketa bidezkoagoan lagunduko duen politika fiskal justu eta progresiboa
- Sektore sozial estrategikoak bermatzeko zerbitzu publiko propioak garatzea

# Aurrekontu eta politika fiskal eta sozialen aldaketa

- Langabezia eta pobreziaren hazkundeari erantzuteko, prestazio sozialak handitzea
- Menpekotasun egoera ororen estaldura
- 0-3 urte artean eta gainontzeko hezkuntza-etapetan eskatzen diren plaza guztiak sare publikoan estaltzea, doan
- Haurtzaroaren nahiz gazteriaren babes ekonomikoa

# Aurrekontu eta politika fiskal eta sozialen aldaketa

- Alokairu sozialeko etxebizitza eskuratzeko aukera bermatu eta etxebizitza hutsen gaineko zerga ezartzea
- Gure eredu sozio-produktiboaren antolaketan aitzindari izango den sektore publiko indartsua sustatzea

# Kalitatezko enplegua sortzeko politika

- Soldaten hobekuntza nabarmena, bereziki baxuenak diren horiena
- Ordezkaritza sindikalaren gehiengoaren adostasunik gabe ezingo da Enplegu Erregulazio Espedienterik aurrera eraman
- Lan nahiz negoziazio kolektiboaren erreformak atzera botatzea

# Kalitatezko enplpegua sortzeko politika

- Lanaldia 35 ordura murriztea
- Aparteko orduak ezabatzea
- Erretiro adina aurreratzea
- Lanbidearteko Gutxieneko Soldata berria ezartzea, Europako Karta Sozialaren ildoan

# Jendartearen parte hartzea bermatu

- Instituzio guztiak berregituratzea, politika ororen diseinu, erabaki hartze eta kontrolean jendartearen parte-hartze demokratikoa ahalbidetzeko
- Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua nahiz Foru Aldundietan eragile sindikal eta sozialen parte-hartzea ahalbidetuko duen bitartekoak ezartzea
- Zorraren gaineko auditoria

# Bizitzaren jasangarritasuna eta ongizatea

- Pertsonak, Herriak eta natura lehenetsi beharra dago multinazionalen etekinen gainetik
- Bizitzaren sostengua lehentasun izango duen eredu sozio-ekonomiko baten alde
- Geure eredu ekonomiko, sozial eta politiko propioa erabakitzeko eskubidea
- TTIP arbuiatu
- Energia berriztagarrien ekoizpena saritzea

# Bizitzaren jasangarritasuna eta ongizatea

- Frackinga debekatzea
- Garraio publiko kolektiboa eta intermodalitatea sustatzea
- Hondakinen murrizketa, berrerabilpena eta birziklapena bultzatzea
- Elikadura burujabetza

# Bizitzaren jasangarritasuna eta ongizatea

- Bizitzaren jasangarritasuna eta ongizaterako, zainketa lanak sozialki aitortu eta banatzea
- Baldintza laboral eta sozialen berdintasuna bermatzea
- Genero, adin, sexu joera, aniztasun funtzional edota nazionalitateengatiko diskriminazio oro ezabatzea

# Demokrazia eta eskubide kulturalen defentsa eta horiekiko konpromisoa

- Askatasunen murrizketarik ez
- Emakumeen kontrako bortizkeriari aurre egitea
- Euskara eta kulturaren normalizazioa
- EH osoan euskararen ofizialtasuna exijitzea
- Egungo hezkuntza ereduen sistema gainditzea
- Arlo ekonomiko nahiz sozialean ahalmen normatibo osoa eskuratzeko burujabetza prozesua sustatzea

# aldaketa soziala orain!

*¡Tenemos alternativas!*

m14

MARTXOAK
14
KALERA

manifestazioak

**MARTXOAK 14 de MARZO**

BILBO: 17:00 Sdo. Corazón

IRUÑEA: 17:30 Parque Antoniutti

carta de los derechos sociales euskal herriko eskubide sozialen karta

#m14aldaketasoziala